

1998KO SANTO TOMAS EGUNA

Xenpelar Bertso Eskola



Berezia izan dugu aurtengo Santo Tomas eguna Xenpelar Bertso Eskolan. Batetik, lehenengo aldiz "Errenteria Hiria Kultur gunea" estrenatu dugulako, eta bestetik X. Zapirain Anaiak bertso paper lehiaketan, aspaldiko partez Bertso Eskolako kide batek, Aitor Albisturrek hain zuzen, saria lortu zuelako.

Arratsaldez ekin zitzaion bertso festa handiari. Lehenik eta behin bertso paper lehiaketaren sari banaketa egin zen, Mikel Carcedoren gidaritzapean. Helduen mailako lehenengo saria Rufino Iraolari egokitu zitzaion, "Baserriaren Gorantz" bertso sortari esker. Bigarren, aipatutako Aitor Albistur izan zen bere "Bertso esaldia"-rekin. Hirugarren lekuan lehiaketa honetan aspalditik ezagutzen dugun Pello Esnal izan zen, "Behobia-Donostian" izeneko bertsoei esker. Gazte mailan beasaindar batek eraman zuen aurten ere lehenengo saria, Irati Goikoetxeak, "Erreka Mari" sorta aurkeztu zuelarik.

Sarituek bere bertsoak bota ostean, hirugarren urtez jarraian Bertsozalearen omenari ekin zitzaion. Aurtengoan, Olaskoaga bertsozale ezagunak merezitako aipamena jaso zuen, berak espero ez zuela gainera. Inoiz baino xumeago eta ederragoa irten zen aurtengo Bertsozalearen omena, Olaskoaga berak biziki eskertu zuelarik berari eskainitako gorantza.

Une hunkigarrien ondoren, bertso festa amaitzeko bertso saioa burutu zen. Antton Kazabon buru zutela, Oihane Enbeita, Andoni Egaña, Ion Maia eta Maddalen Lujanbio igo ziren taula gainera. Saioa ere berezia izan zen, gai berritzaile ugari izan baitzen bertan, eta hurbildutako bertsozaleek saio polita dastatu ahal izan zuten.



BEHOBIA-DONOSTIAN

(Ni ere tartean nintzen)

Doinua: *Xabier Leteren habanera*

1. Behobia-Donostian ni ere tartean nintzen goizean goiz jaiki eta biharamuna arintzen. Semea aspaldi samar zirikatzen hasi baitzen, irteeran ginen biok, hura fin eta ni gizen. Alboan milaka atleta, batzuk ospe eta izen! Inoiz frantses gutxiago entzun izan dut Parisen. Eguzki lotsagabea zeru ta lurra astintzen, ez dago gauza erraza marka berriak ipintzen!

2. Arduradunek baitzuten musika alaia jarri, ia hasi nintzen dantzan, barrenaren aringarri. Gero, hamar t'erdietan, etxafero batek argi, lehen irteera zuen zalapartan iragarri. Aire abiatu ziren hogeita hiru elbarri, gu sutsu txaloka eta sakon begira elkarri. Semearen aurpegian galdez nituen igarri malko bat zintzilik eta begi biak hunkigarri.

3. Ordu-erdia falta zen gure irteerarako. Bitartean zenbat brinko, korrika txiki ta salto! Ni ere taldean nintzen, egia esan beharko, bezperan egindakoa noiz eta nola botako. Baina alboan banuen hamaika hala-holako, neure antzeko agure eta pixagile franko!

Haiei eskerrak hobeto nengoen azkenerako, besteren ezina nonbait lasaigarri zaidalako.

4. Bigarren etxaferoak zeru urdinean, *danba!* hamaiketan egin zuen puntu-puntu eztanda. Han irten ziren onenak guri bizkarra emanda; bi minutu geroago, dorsal txuridunen txanda. Nahiz eta barkatzeko den hiru orduko parranda, kirolarientzat loa beti beharrezko izan da. Semea agurtu nuen "ondo ibili" esanda, "laster abiatuko naiz baso-erdi bat edanda".

5. Behobia utzi eta zenbat kolore paisaian! Airean ikusi nuen neure buruan Pasaian. Bertan jendea txaloka, bakoitza bere talaian, kirolari saiatuen nekean arindu nahian. Ni ere tartean nintzen baina jarrera lasaian: bihotzean poza eta irribarrea bisaian. Hemen zazpi atleta-ohi, hamaika atletagai han, inor gutxi faltako zen berdinik ez duen jaian.

6. Batzuek Easo eta besteek San Sebastian... Zenbat buru hainbat helburu, eguzkiaren azpian. Denetik ikusi nuen han ibilbide guztian:

egingo nuke baten bat ibili zela eskian. Nahiz eta parranda egin azaroaren zazpian, biharamunean nintzen Behobia-Donostian. Baina ez bainaiz atera inortxoren argazkian, oroigarria utziko dut bertso jarrien saskian.

7. Askorentzat galga eta gutxi batzuentzat ezten, lotsak zein ongi dakien jendea amorrarazten. Elbarriak izan ziren lehenak markak errausten -haintzat dena hitz gozo, animo eta mirespen-, ondoren semea-eta kilometroak irensten, azken-bigarren gizen bat ta hanka-luze bat azken. Ni ere tartean nintzen bestek korrika ikusten, errazkeriak ez baitit atleta izaten uzten.

8. Kirolik ez egitea edonorentzat kalte da: pisuarentzat mesede, sasoiarentzat galera. Beraz, kutxa zaharretik txandal urdina atera eta egunen batean irten beharko kalera, hirugarren adineko jendearen arabera izerdi pixka boteaz footing-a latz egitera. Hala, berriz etortzean Behobiako aukera, han izango naiz neu ere semearekin batera.

P. Esnal

BERTSO-ESALDIA

(Bertso bakoitzaren azken oinak jarraian irakurtzean, J.A. Artze-ren esaldi famatua agertzen da)

Doinua: Lagundurikan danoi.

-1-

Artze-k azaldu zuen
problemaren funtsa
eta bere mezua
dakart nik honuntza.
Ikastoletan jaso
badugu hezkuntza
euskarari eskaini
beharko laguntza,
herri baten arnasa
delako **hizkuntza**.

-2-

Nahiz euskaldun sentitu
hainbat eta hainbat
zinez ba ote garen
zalantza badaukat:
bihotza euskalduna
ei dugu erabat,
baina, erdaraz mintzo
gara etxetik at...
Hala ezin daiteke
suspertu herri **bat**.

-3-

Adibidez, dendara
sartzean galdezka
gazteleraz mintzatu
ohi gara gu, ezta?
Txip aldaketa hori
egitera presta;
pentsatze hutsak sortzen
digu hainbat kezka,
baina, ahalegintzea
horren zaila **ez da**.

-4-

Lau haizetara hasi
orduko zabaltzen
haizea zurrumbilo
bilakatu al zen?
Euskararen sugarra
ari da itzaltzen...
orain ez du txingarra
besterik azaltzen
ta gaitzerdi ausporik
ez badugu **galtzen**.

-5-

Zer gerta dakiokkeen
daki ondorenak...
biziraungo duela
esan dit barrenak.
Horretarako batu
ditzagun kemenak,
euskara erabiliz
euskaldun garenak.
Noizbait ikasiko du
gaur **ez dakienak**.

-6-

Ez ote gara ari
kontzeptuak nahasten?
Ez al zaigu euskara
norena den ahazten?
Artze-k argitu zidan
niri azkenik-azken:
euskaldunok euskaraz
ez bagara hasten
erdaldun bat nolatan
hasiko da **ikasten?**

-7-

Gure herria oso
anitza delako
euskaldunez gain daude
hainbat bestelako.
Euskara hartu behar
lukete aintzako
eta ulertzen behintzat
saiatu beharko...
Lortu ez duenak da
nahi **ez duelako**.

-8-

Errurik ez du, baina,
euskotarra denak
erdaraz mintzatzean
euskaldun gehienak;
gure baitan dauzkagu
irtenbide denak...
Ez ditu entzun behar
hain sermoi ozenak
bere hizkuntza zein den
garbi **dakienak**.

-9-

Gure errua onartzen
ez dugu jakiten,
baina, neurea behintzat
ez dut ekiditen,
Buruari jardunda
asko eragiten:
euskara gabe ezin
banaiz plazara irten
bihartik hasiko naiz
beti **hitzegiten!**

-10-

Gure herria oso
anitza delako
euskaldunez gain daude
hainbat bestelako.
Euskara har dezagun
guztiok aintzako!
Denok geure moduan
lagundu beharko
euskara hiltzerik inork
nahi **ez duelako**.

-11-

Artze bere garaian
ez zegoen pozik,
ez zuelako gura
hain herri eskasik.
Kontuak kontu denok
ahaztu dugu kasik
herriak ez duela
sortu euskal hitzik,
euskarak herri egin
gaituela **baizik**.

“AUAKA”

*“Hizkuntza bat ez da gal-
tzen ez dakienak ikasten ez
duelako, dakienak hitzegi-
ten ez duelako baizik”.*

J.A. Artze.